



M^a VICTORIA JOARISTI OLARIAGA ANDREA,
OIARTZUNGO UDAL AGURGARRIAREN
IDAZKARI NAIZENAK

ZIURTATZEN DUT: Udal honen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2010eko martxoaren 22an, beste batzuen artean ondorengo Akordioa hartu zuela:

“PENADEGIKO E.T.A.P.REN ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN KUDEAKETAREN HOBETZE ETA ZEHAZTAPEN PROIEKTUEN ESLEIPEN PROPOSAMENA.

“Penadegiko E.T.A.P.ren eraginkortasun energetikoaren kudeaketaren hobetze eta zehaztaper proiektuak” Toki Inbertsioetarako Estatuaren Diru Laguntza lortu zuenez, obrak burutu ahal izateko adjudikazio fasea martxan jarri zen.

Kontratu txikien moduan esleitzea erabaki zen, aurrekontua 49.726 €koa denez (BEZ kanpo). Ondoren, hiru enpresa ezberdinei eskatu zitzaizen lan hauek egiteko proposamenak egin zitzaizen.

Enpresa hauek bidalitako eskaintzak ondorengo hauek dira:

Enpresak	Eskaintzak (BEZ barne)	Gonbidapen aurrekontua (BEZ barne)	Beharakada	%	Kontrataturako langileria			Epea
					Enpresakoa	Inem	Guztira	
EUSKABEA	53.927,24	57.682,16	-3.754,92	-6,51	8	0	8	2 hilabete
URPA	---		---	---				
ISURKI	53.982,63		-3.699,53	-6,39	5	0	5	2 hilabete

Eskaintza guztiak aztertu ondoren, Obrak eta Zerbitzuak Batzordeak egindako diktamenarekin adostasunean, lan hau Euskabea Electrotécnica del Urumea, S.A. enpresari (IFZ: A20073508) esleitzea erabaki da, aho batez, 46.489 €ko zenbatekoagatik (BEZ kanpo. Aplikagarria den BEZa %16a da) eta 2 hilabeteko epean, merkeena delako eta baldintzak betetzen dituelako. Esleipendunak 8 langile okupatuko ditu lanetan eta ez du kontratazio berririk egingo.

Toki Inbertsioetarako Estatuaren Diru-laguntza ordaintzeko kontu korrontea honakoa da: 21004481000200076557”

Eta horrela jasota gera dadin ematen dut ziurtagiri hau, azaroaren 28ko 2.568/1.986 Errege Dekretuaren 206 artikulua araber, Alkate Jaunaren agindu eta oniritziarekin batera, Oiartzunen, bi mila eta hamarreko martxoaren hogeita bian.

O.E.
ALKATEAK,

